

Angel Erro

♦ IDAZLEA



DANI BLANCO

Afari-aldia

GABON GAUEKOA: Ama alargundu zenetik, Gabon gaueko afaria harenean egiten da. Hiru alabak, bieta-ko senarrak (hirugarrena banandu berri da) eta bost ume. Mahai handiaren inguruan daude denak, haurrak estrategikoki kokatuta. Jorratu behar diren gaiak ere, naturaltasun osoz ateratzen direlako inpresioa ematen badu ere, estrategikoki aukeratuak izan dira, inork ez dezan minik har, isilune nabarmenik egon ez dadin, koinatueta baten langabezia luzea edo amak kasinoan xahutzen duen diru kopuru ezagungabearekiko kezka ez agerrarazteko, gaurko egun berezia ez zapuzteko.

Mahaiaren dekorazioarekin bat egiten duen arintasun trinko batek hartuta, afaltzen eta hitz egiten dute denek, haurren garrasiek lagunduta. Alaben artean ikastola batean andereño dabilenak ikasle batekin gertatutakoa kontatu die. Hilabete osoa eman dute ikasgelako Olentzero prestatzen. Miresgarria da zeinen serio hartzen duten haurrek Eguberriekin zerikusia duen gutzia. Oso motibatuta egoten dira. Hala ere, azkenean pixka bat errudun sentitu da. Oporrak hartu aurretiko egunean, ikasle baten ama berekin hitz egitera etorri da. Semeak euskaraz idatzi dio Olentzerori gutuna eta gurasoak zer opari nahi duen asmatu ezinean dabil-tza. Galdetu diote, baina honek ez du txintik atera nahi. Gutunean idatzi diola Olentzerori eta berak ongi ulertuko diola. Euskaraz ez jakiteagatik semeak zigortu nahi dituela uste du amak. Hiztegi batekin saiatuagatik ere ez dute gauza garbirik atera idatzitakotik. Jostailuren marka zehatzik gabe, deskribapena behar zuen. Azkenean, semeari informazioa ateratzeko hamaika saioren ondoren, beste irtenbiderik gabe, ikastolako andereño-arengana jotzea erabaki dute (ez dute euskal ingurune handiegirik eta, gainera, ume idazkera ulertzeko ez da mundu guztia

gauza). Lotsaz kontatu dio amak, semearen ustezko zigorra benetan gauzatzen ariko balitz bezala, eta burumakur luzatu dio koaderno bateko orri laukiduna, ongi ezagutzen duen idazkeraz zirrimarratua, erdaraz zer esan nahi duen esan diezaion. Bertan idatzitakoa azkar irakurri ondoren, ez da amari ezer itzultzera ausartu. Orrialdea eman dio atzera eta Errege Magoei idatz diezaiola esan dio.

URTEZAHAR GAUEKOA: Hiriguneko San Silbestre Lasterketara Unai eraman ondoren, aita amaren bila pasa da eta hirurak autoan aitona-amonenera joan dira. Igo dira, goian gutxi egoteko promesarekin. Amatik berriro ekin die zergatik ez duten afaltzera gelditu behar, toki eta jateko aski dagoela bi gehiagorentzat. Bien artean azaldu diote aspaldian hala erabaki zutela eta aspaldian hala jakinarazi ziotela. Unai gabe, nahi zutela betiko lagunekin elkartu eta dibertitu pixka bat. Aitaxi dagoeneko jolasean dago Unairekin, Aita Noelek zer ekarri dion galdezka. Normalean alabaren zuzenketa dator ondoren (“Aita, gurera ez dator Aita Noel, Olentzero baizik; baietz, Unai?”), baina oraingoan alabak ez du deus esan. Bat-bateko presak hartuta, amari bi muxu eman dizkio eta aitari adio esan dio atetik beretik. Senarra dagoeneko igogailuaren aurrean dago.

Unai azaldu dio aurten ez dela Olentzero bere etxetik pasa, berak ez daki zergatik, eta Errege Magoei idazteko esan diola amak.

Aitaxik beste garai batean garaipenezkoa litzatekeen hasperen ia hautemanezina bota du. Zer eskatu dion galdetu ondoren,

aitatxik listua irentsi eta Unairi azaldu dio Errege Magoek ere badakitela, ederki jakin ere, euskaraz. Orri eta arkatz bat hurbildu dizkio. ■



Antton Olariaga

